

BIGARREN KAPITULUA

Zergatik ez naizen nire jaiotetxe Balantzategira itzultzen. Pauline Bernardettek esaten dizkidanak.
Nire lehen kolpea, jaiotza.

1. Zergatik ez da itzultzen protagonista Balantzategira?
2. Zergatik dio hasierako behia inuzente eta ergela izan zela?
3. Nor da Pauline Bernardette? Zelakoa da?
4. Zer adierazten dute ondoko esaera eta kanta zahar hauek:
 - *Oriko txoriak Orira nahi*
 - *Mundu honetan belar ederrak badira, baina bihotzak dio zoaz Balantzategira*
5. Zelan lagundu dio Setatsuak bere behitasuna onar dezan?
6. Zelakoa da protagonistaren inguruko paisaia? Deskriba ezazu.

Gogoetak

1. Zaila da gu geu garena onartzea?
Beste norbait izatea gustatuko litzaizuke?
2. Komentatu (5 lerrotan edo) gizonari esandako berba hauek:
“Bego, laurogeita zortzi urte biziko haiz. Baina horietatik hogeita hamahiru gizon bezala pasatuko dituk; hogeita zortzi, astoa bezala lan eginez; hamabi, zakurki; eta azkeneko hamabiak, arrastaka sugearen moduan.”

Hiztegia. Eman ondoko hitz hauen esanahia:

Tximirrika, sapelaitz, mordoxka, frantziberdea, moztaka, errai, erdiragarria, estrapozoka, zinbuluka, zimaaur, aluxka, ikuilu.

Jar itzazu Paulinereen berbak euskara batuan